



**Porrot ekonomikoa egiteko arriskuan
dauden familiei arreta emateko**

PLAN INTEGRALA



SARRERA

Gure gizartea jasaten ari den krisialdi luze honen ondorioz familia askok eta askok arazo ekonomiko larriak ditu, porrot ekonomikoa izateraino ia-ia.

Egoera hori sortu da familia-unitateko kide bat edo gehiagok beraien enplegua galdu dutelako. Langabezia-egoera larriagotu egiten da familia zorpetuta da-goenean, etxebizitza jabetzan erostea-gatik gehienetan, onaldi ekonomikoaren garaian guztiz garesti gainera.

Ermuar gehienok gure enpleguen men-pe gaude, ez daukagu beste diru-iturri edo baliabiderik gure soldatatik aparte, horregatik herritar batzuk kezkatzen dituzten ekonomia-arazoak konpontze-ko modu bakarra gure lan-merkatuan berriro ere enplegu-aukerak eskaintzen hastea da ezinbestean.

Baina lan-merkatuaren eskulana asimilatze-ko gaitasunaren berreskuratze-prozesuak askoz ere motelagoak dira egoera larri horretan daudenak duten erantzun-premia baino.

Ohiko etxebizitzaren ordainketei aurre egiteko zailtasunak, bizitzeko behar diren baliabideez hornitzekoak edo

seme-alabei behar dutena ematekoak larritasun eta bakardade-sentimendua sor dezake egoera hori bizi duten per-tsonengan, egoera argitasunez ikustea eta irtenbidea aurkitzea zailagotuz.

Testuinguru horretan beharrezkoa da gizarteak erantzun bat ematea, elkarta-sun mekanismoak sortzea, gaizkien pa-satzen ari diren haiei segurtasun-sare bat eskaintzeko.

Halaber, beharrezkoa da, gobernatze-ko erantzukizuna duten haiek, guztien ongiaren alde lan egin behar dutenek, beraien lehentasunak egokitzea eta gi-zartearen egoera eta errealitate berri hauei erantzun bat ematea, eta gober-nu-maila guztien eginkizuna da hori.

Udal gobernuak, Udalak eta baita ere herriko sindikatu eta gobernu kanpoko elkarte eta antolakundeek borondate sendoa daukate egungo egoera berezi honi talde-erantzun bat emateko, **eta borondate horri erantzuten dio, hain zuzen ere, ondorengo orrialdeetan aurkeztzen den Plan Integral honek:**

Zein dira plan integral honen helburuak?

- **Berehala erantzuteko eta hurbileko zerbitzu-sare bat jardunean jartzea.** Horretarako, Udal Gizarte Zerbitzuek lehenetasun osoz eta arin erantzungo diete sail honetan aurkeztu diren kontsulta eta eskaerei.
- **Familiei laguntza prebentiboa ematea, oraindik berandu ez denean.** Garrantzitsua da egoera ekonomiko larriei, batez ere hipoteka-zorrak diren kasuetan, ahal bezain laster aurre egitea. Arazoei zenbat eta beranduago heldu, orduan eta zailago gertatzen da irtenbide bat aurkitzea.
- **Premiazko kasuetarako presako bigarren sare bat sortzea:** Jada larriak diren egoerei berehala erantzungo zaie. Helburua da herriko familia bat bera ere etxerik edo jatekorik gabe ez geratzea.
- **Ekimen publikoa eta pribatua harmonizatzea eta koordinatzea.** Guztiok lagundu behar dugu, bakoitzak gure erantzukizunaren arabera. Laguntza hori eraginkorrago izan dadin eta baliabideei etekin handiena ateratzeko, ahalegin guztiak elkartu beharra dago.



Norentzat da?

Honako egoera batean dauden herriko pertsona eta familia guztientzat:

- Langabezian, prestazioekin (laguntza ekonomiko, langabeziako aseguru eta abar) zein prestaziorik gabe, eta ondorioz, etxeko diru-sarrerak asko murriztu zaizkientzat.
 - Egun etxeko obligazioak edo zorrak ordaintzeko arazoak dituztenentzat, edo laster izango dituztela aurreikusten duten haientzat.
- Arazo ekonomikoei aurre egiteko aholkularitzarik ez duten eta nora jo ez dakiten pertsonentzat.
- Egungo egoera ekonomikoak osasun arazoak, fisikoak eta psikologikoak, sortzen dizkieten eta laguntza espezializatua behar duten guztientzat.



Zer eskaintzen du plan integral honek?

Plan Integral honek porrot ekonomikoa egiteko arriskua dagoenean sortzen diren oinarritzko beharrezaneiei erantzuteko aukera eskaintzen du, kasu bakoitzari egokitutako neurriak eta jarduketak martxan jarrita.


Proposatzen diren zerbitzuak eta laguntzak ondorengoak izango dira:

1. Pertsonaren edo familiaren egoeraren azterketa orokorra egiteko, egoera hori sortzen duten arrazoiak zein diren jakin eta horiek bideratzeko aukerak eskainiz. Horrek, epe labur eta ertainerako, elkarrekin lan egiteko planak ezartzen lagunduko du, eta egoera hori sortu duten arazoei aurre egin.

2. Pertsona profesional laguntza honako aspektuak kudeatzeko:

- Administrazioari (Ogasunari, Gizarte Segurantzari, Udalari...) eskaerak egiteko izapide administratiboak.
- Familiaren egoera ekonomikoari buruzko aholkularitza (diru-sarrera eta gastuen azterketa, hipoteka-zorria eta abar).
- Banketxeekin negoziatzeko prozesuetan laguntza eta bitartekaritza.
- Behar denean, aholkularitza espezializatua eskuratzeko, kanpoko zerbitzuetara bideratzea eta laguntzea.





3. Oinarrizko beharrezanez eta premiaz konpondu beharrekoei arreta ematea:


- Pertsona edo familia eskatzaileak eskubidez eskura ditzakeen laguntzen presako gestioa.
- Laguntzen presako ordainketa efektiboa.
- Udal Gizarte Zerbitzuek edo berorren erakunde laguntzaileek (Cáritas, Gurutze Gorria eta abar) gestionatutako laguntzen aplikazioa.

4. Pertsona/familiaren egoeraren ondoriozko osasun-arazo fisiko zein psikologikoei erantzuteko laguntza:

- Berehalako laguntza psikologikoko zerbitzua.
- Larriak diren kasuetan, osasun publikoko sistemekin koordinatzea.

5. Ohiko etxebizitza galtzeko prozesuan dauden pertsona eta familien etxebizitza-premiari berehalako erantzuna ematea:

- Udalaren jabetzako etxebizitzak, premiazko kasuetarako: ohiko etxebizitza utzi egin behar eta besterik ez dagoenean, denbora-epe mugatu baterako, pertsona edo familia horrek bere bizileku-arazoa nolabait konpondu arte.
- Errentako etxeen merkatuarekin bitartekaritza publikoa egitea, jabeek etxebizitza errentan jar ditzaten Udalaren babesarekin.
- Zergak ez ordaintzeagatik Udalarekin zorpetuta dauden pertsonenganako arreta berezia.





Nora joan behar da?



Udal Gizarte Zerbitzuetara, zerbitzu publiko eta doakoa.

Langile espezializatuak daude, Ermuko beste zerbitzu eta antolakundeekin koordinatzen dira, eta beste eremu geografikoetako zerbitzu eta erakundeetara bideratzeko laguntza ere ematen dute.

Deitu gurera eta har ezazu txanda; berehala erantzungo dizugu.

Gure telefono-zenbakiak:

943 17 91 61 edo 943 17 91 62 dira.

Zeu zuzenean ere etor zaitezke. Hauxe da gure helbidea:

Erdikokale 21ean, Zahar-etxearen ondoan.

Mezu elektronikoa ere bidali diezagukezu. Hau da gure helbide elektronikoa:

alarranaga@udalermua.net



AYUNTAMIENTO DE ERMUA

ERMUKO UDALA



Laguntzaileak: **Udal Solidaritate Kontseiluaren kide diren elkarte, talde, GKE eta Udal erakundeen lankidetzaz**